

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK. 2020KO IRAILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetan erregistratutako sarrerak % 47,4 jaitsi dira 2020ko udan, eta gualdiak % 50,8

Atzeritik etorritako turisten sarrerak % 67 baino gehiago murriztu dira, eta Estatukoak % 27,4

2020ko udako hilabeteetan –uztaila, abuztua eta iraila–, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak 526.814 izan dira, hau da, 1.034.437 gau igaro dituzte bidaiariek. Beraz, aurreko urteko aldi beraren aldean, % 47,4 gutxiago izan dira sarrerak eta % 50,8 gutxiago gualdiak.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, sarrerak eta betetze-mailak. Uztaila, abuztua eta iraila 2020

	Gualdiak		Sarrerak		Betetze-mailak (%)			
	Uda 2020	p/p-12 (%)	Uda 2020	p/p-12 (%)	plazaka		gelaka	
					Uda 2020	p.p.*	Uda 2020	p.p.*
EUSKAL AE	1.034.437	-50,8	526.814	-47,4	40,8	-32,0	47,5	-34,6
Estatukoak	745.608	-31,7	366.008	-27,4	-	-	-	-
Atzeritarrak	288.829	-71,4	160.806	-67,7	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	127.621	-50,1	69.140	-47,6	38,8	-25,2	46,8	-28,1
Estatukoak	103.659	-39,7	54.049	-34,6	-	-	-	-
Atzeritarrak	23.962	-71,5	15.091	-69,5	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	83.414	-54,1	43.207	-51,9	38,8	-25,6	50,1	-28,3
BIZKAIA	397.875	-58,7	197.540	-58,7	34,7	-36,4	42,4	-38,8
Estatukoak	307.752	-39,2	149.082	-38,7	-	-	-	-
Atzeritarrak	90.123	-80,3	48.458	-79,4	-	-	-	-
Bilbao	230.784	-61,2	121.845	-59,3	33,4	-41,5	39,7	-45,3
GIPUZKOA	508.941	-42,2	260.134	-33,6	48,1	-29,8	53,3	-32,5
Estatukoak	334.197	-19,2	162.877	-8,5	-	-	-	-
Atzeritarrak	174.744	-62,6	97.257	-54,5	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	308.331	-40,3	155.319	-29,6	50,6	-33,9	54,2	-37,3

p.p.*= aurreko urteko periodo berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurrien eraginak, beraz, sektorearen bilakaera markatzen jarraitzen du. Ildo horretan, eta Euskal AEr dagokionez, plazen okupazio-maila % 40,8 izan da, 2019ko udan baino ehuneko 32,0 puntu gutxiago, eta logelen okupazio-maila % 47,5 izan da, aurreko urteko aldi berean baino ehuneko 34,6 puntu gutxiago.


Lurraldeka, joera negatiboa izan da kasu guztietan, baina intentsitate ezberdinekoa izan da. Gipuzkoa mantendu da ongien, sarrerak % 33,6 murriztu baitira, eta gualdiak % 42,2; Araban, aldiz, % 47,6 jaitsi dira sarrerak, eta gualdiak % 50,1; azkenik, Bizkaiak izan du uzkurduarik handiena: % 58,7 bai sarreretan bai gualdietan.

Lortutako okupazio-mailei dagokionez, Gipuzkoan ehuneko 32,5 puntu egin du behera, eta logelen araberako okupazio-maila % 53,3koa izan da; Araban, berriz, ehuneko 28,1 puntu egin du behera, eta logelen araberako okupazioa % 46,8koa izan da. Azkenik, Bizkaian logelen okupazio-maila ehuneko 38,8 puntu jaitsi da, udako hiru hilabeteetan % 42,4koa izanik.

Bereziki garrantzitsua izan da atzeritik etorritako turisten sarrerak eta gualdiak galdu izana. Sarreraren kasuan, 2020ko udan, 2019koaren aldean, erregistratutako 475.234 sarrera gutxiago horietatik, atzeritar jatorriko turistek dagozkienak 337.370 izan dira, hau da, utzitako guztizkoaren % 71. Gualdiei dagokionez, aurtengo udan 1.066.130 gualdi gutxiago izan dira, eta horietatik 719.965 ohiko bizilekua atzerrian duten pertsonenak izan dira, hau da, jaitsiera osoaren % 67,5.

Ostatu-gauak Euskal AEko hotel-establezimenduetan lurralde historikoaren arabera

Gaualdi kopurua



2020ko irailari dagokionez, Euskal AEko hotel-establezimenduetan izandako sarrerak eta gaualdiak jaitsiera nabarmena izan dute aurreko urteko hil berean izandakoekin alderatuta. Sarrerak, 130.004 pertsona, % 59,0 jaitsi dira; eta gaualdiak, 249.794, % 60,2. Zifra horiek abuztuan ikusitako datuekin alderatuta okerrera egin dutela adierazten dute, zeren 216.967 sarrera eta 444.267 gaualdi erregistratu baitziren, eta horrek esan nahi du urte arteko jaitsierak izan zirela abuztuan % 39,2 eta % 43,1, hurrenez hurren.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia, betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Iraila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	2019/09	plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
							2020/09	p.p.*	2020/09	p.p.*	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	249.794	-60,2	130.004	-59,0	1,92	1,98	30,0	-37,3	38,5	-42,6	71,7	-33,52	27,6	-68,45
Estatukoak	193.350	-36,4	99.807	-35,5	1,94	1,96	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	56.444	-82,6	30.197	-81,4	1,87	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	34.255	-54,7	18.094	-55,2	1,89	1,87	32,2	-26,7	42,0	-31,8	61,2	-17,22	25,7	-52,90
Estatukoak	29.199	-43,3	15.421	-42,8	1,89	1,91	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.056	-79,1	2.673	-80,1	1,89	1,80	-	-	-	-	-	-	-	-
VITORIA-GASTEIZ	24.224	-54,8	11.941	-55,7	2,03	1,99	34,9	-24,6	47,4	-30,6	53,6	-16,47	25,4	-49,21
BIZKAIA	99.272	-65,4	49.698	-67,0	2,00	1,91	26,0	-39,5	35,3	-45,7	59,7	-37,87	21,1	-72,93
Estatukoak	81.047	-40,2	40.853	-43,6	1,98	1,87	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	18.225	-88,0	8.845	-88,7	2,06	1,94	-	-	-	-	-	-	-	-
BILBAO	59.496	-66,8	31.635	-65,8	1,88	1,94	25,5	-44,4	33,8	-52,6	61,5	-44,56	20,8	-78,31
GIPUZKOA	116.267	-56,2	62.212	-50,6	1,87	2,11	33,8	-38,6	41,0	-42,9	86,5	-34,50	35,5	-67,97
Estatukoak	83.104	-28,9	43.533	-21,4	1,91	2,11	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	33.163	-77,6	18.679	-73,5	1,78	2,10	-	-	-	-	-	-	-	-
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	68.053	-56,2	36.440	-49,0	1,87	2,18	34,1	-44,6	40,1	-50,1	103,6	-41,26	41,5	-73,91

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Krisiaren eragina ez da uniformea izan irailean, aurreko urteko hil beraren aldean, lurralde mailan. Gipuzkoan % 50,6 murriztu dira sarrerak, eta % 56,2 gualdiak, eta Araban % 55,2 eta % 54,7, hurrenez hurren. Bizkaian urte arteko jaitsiera nabarmenagoa izan da: sarrerak % 67,0 jaitsi dira, eta gualdiak % 65,4.

Estatutik etorritako bidaiarien sarrerak, Euskal AEko hotel-establezimenduen guztizkoan, 99.807 izan dira; atzeritik etorritakoak, berriz, 30.197 izan dira. Hau da, 2019ko irailean baino % 35,5 eta % 81,4 gutxiago, hurrenez hurren. Atzerriko egoiliarak sarrera guztien % 23,2 izan dira, eta ehuneko hori % 51,2koa zen 2019ko hil berean.

Batez besteko egonaldia 1,92 egunekoa izan da irailean, 2019ko iraileko 1,98 eguneko batez besteko egonaldiaren azpitik apur bat. Araban iazko 1,87 egunetik aurtengo iraileko 1,89 egunera igo da; Bizkaian ere igo da, 2019ko iraileko 1,91 egunetik 2020ko iraileko 2,00 egunera. Gipuzkoan, aldiz, batez besteko egonaldia 2,11 egunekoa izan zen 2019ko irailean, eta 1,87 egunekora jaitsi da aurtengo irailean.

Plazakako okupazio-maila ehuneko 37,3 puntu jaitsi da Euskal AE osoan: 2019ko iraileko % 67,3tik aurtengo iraileko % 30,0ra. Lurraldeka, plazen arabera okupazio-mailak % 32,2, % 26,0 eta % 33,8 izan dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; urte arteko beherakadak 26,7, 39,5 eta 38,6 ehuneko-puntuak izan dira, hurrenez hurren.

Irailean plazen arabera hotel-okupazio handiena Gipuzkoako kostaldean gertatu da (% 44,5); ondoren, Gasteizen (% 34,9) eta Donostian (% 34,1).

Gelen arabera okupazio-maila ere ehuneko 42,6 puntu jaitsi da, % 38,5etan kokatuta Euskal AE osoan. Lurraldeen arabera, balio hauek erregistratu dira: Araban % 42, Gipuzkoan % 41 eta Bizkaian % 35,3.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar) % 68,4 gutxitu dira 2020ko irailean, eta eguneko batez besteko tarifa (ADR) % 33,5 murriztu da

Sektorearen errentagarritasun-adierazleei dagokienez, Euskal AEko hotelen eguneko batez besteko tarifa (ADR) 71,7 eurokoa izan da 2020ko irailean, urtebete lehenago baino % 33,5 gutxiago. Batez besteko tarifa 61,2 eurokoa izan da Araban, non % 17,2 jaitsi den, 59,7 eurokoa Bizkaian, % 37,9ko murrizketarekin, eta 86,5 eurokoa Gipuzkoan, 2019ko irailean baino % 34,5 gutxiago.

Logela eskuragarriko diru-sarrerak (RevPar), zeinak hotel-establezimenduen okupazioaren arabera diren, 27,6 eurokoak izan dira 2020ko irailean Euskal AEn, 2019ko irailean baino % 68,4 txikiagoak. Araban, RevPar indizea 25,7 eurokoa izan zen, 21,1 eurokoa Bizkaian eta 35,5 eurokoa Gipuzkoan, hau da, aurreko urteko hil berean baino % 52,9, % 72,9 eta % 68,0 gutxiago.

Landetxeak

2020ko udan landetxeetan egindako gaualdiak % 36,4 jaitsi dira 2019ko udaren aldean

Euskal Aeko landetxeetako gaualdiak, sarrerak eta betetze-mailak. Uztaila, abuztua eta iraila 2020

	Gaualdiak		Sarrerak		Betetze-mailak (%)			
	Uda 2020	p/p-12 (%)	Uda 2020	p/p-12 (%)	Plazaka		Gelaka	
					Uda 2020	p.p.*	Uda 2020	p.p.*
EUSKAL AE	127.703	-36,4	39.930	-37,9	33,4	-15,1	38,3	-14,8
Estatukoak	117.204	-24,8	36.107	-24,7	-	-	-	-
Atzeritarak	10.499	-76,8	3.823	-76,7	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	18.501	-37,5	6.350	-42,1	20,5	-11,1	25,2	-8,8
BIZKAIA	36.948	-42,1	11.135	-47,9	32,9	-17,9	37,7	-17,7
GIPUZKOA	72.254	-32,8	22.445	-29,8	40,3	-14,9	45,3	-15,6

p.p.*= aurreko urteko periodo berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta 39.930 pertsona sartu dira 2020ko **uztailean, abuztuan eta irailean**; hau da, aurreko urteko aldi berean baino % 37,9 gutxiago. Erregistratutako gaualdiak, 127.703, % 36,4 jaitsi dira aldi berean, 2019ko udakoekin alderatuta.

Lurraldeei dagokienez, sarreren jaitsierak balio desberdinak izan ditu: % 47,9 Bizkaian, % 42,1 Araban eta % 29,8 Gipuzkoan. Gaualdiak % 42,1 jaitsi dira Bizkaian, % 37,5 Araban eta % 32,8 Gipuzkoan.

Gaualdien murrizketaren ondorioz, Euskal AEko landa-ostatueta okupazio-mailak jaitsi egin dira, bai plazen arabera, bai logelen arabera: ehuneko 15,1 puntu plazen arabera okupazio-mailarako, eta ehuneko 14,8 puntu logelen arabera okupazio-mailarako. Okupazio horiek % 33,4 eta % 38,3 izan dira, hurrenez hurren, 2020ko udan.

2020ko irailari dagokionez, Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak 7.521 izan dira; hau da, % 61,1eko jaitsiera izan da urtetik urtera. Gaualdiak 19.912 izan dira, hau da, % 56,7 gutxiago 2019ko irailean erregistratutakoekin alderatuta.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Iraila

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	m/m-12 (%)	2020/09	2019/09	2020/09	p.p.*
EUSKAL AE	19.912	-56,7	7.521	-61,1	2,65	2,38	16,0	-18,3
Araba/Álava	2.480	-65,1	1.027	-68,6	2,41	2,17	8,3	-15,1
Bizkaia	4.997	-67,6	2.110	-69,6	2,37	2,22	13,4	-24,5
Gipuzkoa	12.435	-47,1	4.384	-51,8	2,84	2,58	21,6	-15,6

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hiru lurraldeetan izan da jaitsiera nabarmenik. Bidaiarien sarreretan Bizkaian % 69,6ko jaitsiera izan da; Araban eta Gipuzkoan, % 68,6koa eta % 51,8koa, hurrenez hurren. Gaualdiek antzeko portaera izan dute: Bizkaian % 67,6 jaitsi dira, Araban % 65,1 eta Gipuzkoan % 47,1.

Oharra. Eustatek inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako ahaleginagatik gaur egungo ezohiko egoeran. Haiei esker, zabaldu ahal izan da informazio hau zeinek aukera ematen baitu kuantifikatzeko COVID19ari aurre egiteko hartutako neurriek sektorean izan duten eragina.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62